

186. FITXA BIZKAIA – Klima-aldaketaren eta energia-trantsizioaren arloko jarduketak egiteko dirulaguntzak. 2026.

Nori zuzendua: Bizkaiko Lurralde Historikoko udal eta mankomunitateak, baldin eta klima-aldaketarekin eta energiarekin lotutako jarduerak egiteko ardura badute.

Sarbide-esteka: [Hasiera - Bizkaiko Foru Aldundiko Egoitza Elektronikoa](#)

Erreferentziazko araudia: [Bizkaiko Foru Aldundiaren 128/2025 FORU DEKRETUA, abenduaren 11koa, zeinaren bidez ezartzen baitira oinarri arautzaileak eta 2026ko deialdia udalei eta mankomunitateei dirulaguntzak emateko, klima-aldaketaren eta energia-trantsizioaren arloko jarduketak egin ditzaten.](#)

Eremuak: Klima aldaketa eta energia-trantsizioa

Zenbatekoa: 2.215.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2026/03/02 17:00etan.

Laburpena

Foru-dekretu honen xedea da Bizkaiko Lurralde Historikoko udalei eta mankomunitateei dirulaguntzak lehia-konkurrentziaren araubidean emateko oinarriak eta deialdia ezartzea, 2026ean **klima-aldaketaren eta energia-trantsizioaren arloko inbertsio-proiektuak eta jarduketak** egiteko.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

- **Planak eta azterlanak, toki-erakundearen partaidetza duten komunitate energetikoak sortzeko jarduketak eta energiari buruzko informazioko lanen jarduketak:** Dirulaguntza-lerro horrek 140.000 euroko muga izango du guztira.
 - Planak eta azterlanak egitea
 - Toki-erakundearen partaidetzarekin energia-komunitateak sortzeko jarduketak
 - Energiari buruzko informazio-lanak
- **Baliabide berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak eta kogeneraziokoak/trigeneraziokoak:** Dirulaguntza-lerro horrek 1.075.000 euroko muga izango du guztira.

- Baliabide berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak.
 - Kogenerazioko/trigenerazioko instalazioak.
- **Energia-aurrezpen eta -efizientziako jarduketak:** Dirulaguntza-lerro horrek 1.000.000 euroko muga izango du guztira.
- Eraikin publikoen inguratzaile termikoaren gaineko jarduketak
 - Airearen girotzeko eta/edo etxeko ur beroa (UBS) produzitzeko instalazioak
 - Barne-argiztapeneko instalazioak
 - Kanpoko argiztapen publikoaren gaineko jarduketak

Kanpo geratzen diren jarduketak:

- Partikularrei erabilera pribaturako laga zaizkien edo lagatzea aurrez ikusten den ondasun publikoetan egin nahi diren obrak eta jarduketak.
- Titulartasun pribatuko ondasunetan egin nahi diren obrak eta jarduketak, salbu eta udalari lagatako ondasunetan energia-instalazioak ezartzeko egindakoak, bai energia-komunitateek, autokontsumo-sistema kolektiboek edo tokiko erakundeak parte hartzen duen tokiko sareek erabiltzeko, bai tokiko erakundearen erabilera propiorako edo erabilera publikorako. Nolanahi ere, toki-erakundeak izango du diruz lagundutako instalazioen jabetza. Hemen ezarritako salbuespena behar bezala egiaztatu beharko da eskabidean.
- Energia-zerbitzuen enpresaren figuraren bidez enpresei adjudikatutako kontratuetan jasotzen diren proiektuak edo jarduketa-sektoreak.
- Energia-kontsumoa murriztea edo energia berriztagarriak sortzea argi eta garbi ez dakarten jarduketak.
- 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen gauzatutako jarduketak.
- 3.000 eurotik beherako inbertsioa (BEZik gabe) dakarten eskabideak.

Gastuetarako aldi hautagarria

Diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak **2026ko urtarrilaren 1aren ondoren** hasi behar dira, eta data hauek baino lehen amaitu.

- a) Baliabide berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak eta energia-aurrezpen eta-efizientziako jarduketak: **2027ko maiatzaren 21a baino lehen.**
- b) Planak eta azterlanak, toki-erakundearen partaidetzarekin komunitate energetikoak sortzeko jarduketak eta energiari buruzko informazioko lanen jarduketak: **2027ko martxoaren 21a baino lehen.**